



Usurbilgo Udala

2017KO IRAILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Gartzia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontu-hartzailea: Karmele Lizaso Ubera

Ezin-etorria adierazi du: Xuban Zubiria Elexpe

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2017ko irailaren 26an, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA:

* **2017/07/26KO BILKURA.**

Batzarkideek, 2017ko uztailaren 26ko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: UZTAILAREN 17TIK IRAILAREN 15ERA (2017/0757-2017/0961).

Alkatetzak 2017ko uztailaren 17tik irailaren 15era bitartean (2017/0757–2017/0961) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2017/0791 DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

Batzarkideei, 2017/0791 dekretuaren berri eman zaie eta jakinaren gainean geratu dira.

4.- USURBILGO UDALAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA, INFORMAZIOAREN, ADMINISTRAZIOAREN ETA KUDEAKETA ELEKTRONIKOAREN ESPARRUKO ZERBITZUAK ELKARRI EMATEKO.

Alkateak hitzarmen honi buruzko azalpenak ditu.

Hitzarmenaren helburua informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoaren esparruko zerbitzuak elkarri ematea dela azaldu du. Bertan xedatzen dela dio, batetik, bi administrazioek ematen dituzten zerbitzu elektronikoak guztiek aprobetxatzeko moduan jartzea eta, bestetik, bi administrazioen artean informazio trukaketa egin ahal izatea. Azken batean, kudeaketa elektronikoaren printzipioetako bat izaten dela dio erakundeen arteko informazio truke librea eta erraza egitea.

Batzarkideek, Antolakuntza Batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: ID.21/2017-0267

2017ko maiatzaren 10ean, 50/2017 Ebazpena, apirilaren 12koa, argitaratu zen EHAAn. Ebazpen horrek xedatzen du argitara eman dadila Euskal Autonomia Erkidegoko udalekin sinatuko den lankidetzeta-hitzarmenaren eredia, informazio, administrazio eta kudeaketa elektronikoko zerbitzuak elkarri emateko.

Hitzarmenaren xedea da baldintza eta irizpide orokorrak finkatzea: alde batetik, sinatzaileek ematen dituzten zerbitzu elektronikoak guztiek aprobetxa ditzaten, eta, bestetik, informazioa elkarri truka diezaioten. Zeregin horiek deskribatu dira datuak transmititzeko eranskinean (I. eranskina) eta jakinarazpen eta komunikazio elektronikoen zerbitzuei buruzko eranskinean (II. eranskina).

Gainera, 2017ko martxoaren 24an Estatuko Administrazio Orokorrak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sinatutako lankidetzeta-hitzarmen berriaren



Usurbilgo Udala

sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoen oinarriko irtenbide teknologikoak baliatu ahal izango dituzte toki-erakundeek, 12. klausulan eta III. eranskinean xedatutakoaren arabera.

Hau guztia horrela, Antolakuntza Batzordeak, 2017ko irailaren 18an egindako bilkuran, aho batez, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Informazioaren, administrazioaren eta kudeaketa elektronikoen esparruko zerbitzuak elkarri emateko Usurbilgo Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea.

BIGARRENA: Alkateari eskumena ematea, Udalaren izenean, goian aipatutako hitzarmena sina dezan.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapiain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.


5.- USURBILGO UDALAREN ETA IZENPE SA-REN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, UDAL HONEK ERREGISTROKO ERAKUNDE GISA JARDUN DEZAN, HERRITARREN IDENTIFIKAZIORAKO ETA SINADURARAKO BITARTEKO ELEKTRONIKOAK EMATERAKO ORDUAN.

Alkateak hitzarmenari buruzko azalpenak eman ditu.

Hitzarmen hau Udalaren eta Izenperen artekoa dela dio eta, kasu honetan, Udalak erregistroko erakunde gisa jardun dezan sinatzen dela aipatu du. Helburua dela dio herritarren identifikaziorako eta sinadurarako bitarteko elektronikoen ematea.

Gero eta gehiago entzuten dela eta praktikan ere hala dela dio erregistro elektronikoa. Udala bide horretan abiatuta dagoela esan du eta erregistro gisa funtzionatu ahal izateko identifikaziorako eta sinadurarako bitartekoak behar dituela esan du, hau da, herritarrei aukera emateko erregistro gisa funtzionatu dezan.

Batzarkideek, Antolakuntza Batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:



Usurbilgo Udala

“Esp.zk.: ID.21/2017-0390

Izenpek sortzen dituen identifikazio eta sinadura elektronikoko bitartekoek harpidedunei eta, hala badagokio, gakoan erabiltzaileei aukera ematen diete modu elektronikoa harremanetan jartzeko administrazio publikoekin, erakunde erabiltzaileekin eta haiek erabiltzea onartu duten instituzio publiko eta pribatuekin, baita azken horien artean ere.

Helburu izanik interesdunei aukera ematea Izenpek jaulkitako bitarteko elektronikoa erabiltzeko, Usurbilgo Udalak eta Izenpe SAK interesa dute lankidetzan aritzeko, Udal honek Erregistroko erakunde gisa jardun dezan, herritarren identifikaziorako eta sinadurarako bitarteko elektronikoa ematerako orduan.

Udalaren zereginak izango dira: erabiltzaileen nortasuna egiaztatzea, erregistro-erakundearen jasotako inguruabarren ziurtagiriak egiaztatzea, eta igortzeko, ezeztatzeko/baliogabetzeko eta berritzeko eskaerak baliozkotu eta onartzea.

Hau guztia horrela, Antolakuntza Batzordeak, 2017ko irailaren 18an egindako bilkuran, aho batez, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Usurbilgo Udalaren eta Izenpe SAREN arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea, Udal honek Erregistroko erakunde gisa jardun dezan, herritarren identifikaziorako eta sinadurarako bitarteko elektronikoa ematerako orduan.

BIGARRENA: Alkateari eskumena ematea, Udalaren izenean, goian aipatutako hitzarmena sina dezan.


HIRUGARRENA: Hitzarmenaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LAUGARRENA: Erabakiaren berri Izenpe SA-ri ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisola eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.



Usurbilgo Udala

6.- UDALAK HILERRI BERRIAN ESKAINITAKO HILOBIEN GAINEKO ESKUBIDEAK ESLEITZEA (9. LOTEA).

Alkateak adierazi du puntu hau Zerbitzuak eta Obrak batzordetik datorrela eta batzordeburua Jone Urdanpilleta dela.

Jone Urdanpilletak adierazi du bere familiarterko batek egin duenez eskaera ez duela parte hartuko eta Jose Mari Iribar-i eman dio hitza.

Jose Mari Iribarrek hitza hartu du eta irizpenari buruzko azalpenak eman ditu.

Batzarkideek, Zerbitzuak eta Obrak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. zk.: HZ.06/2017-0109

Aurrekariak


Udalbatza Plenoak 2017ko martxoaren 28an egindako ohiko bilkuran, besteak beste, hilerrri berriko hilobien gaineko eskubideak (9. lotea) emakida administratiboaren bidez esleitzeko betebeharreko Baldintza Juridiko Ekonomiko eta Administratibo Bereziak onartzea, lizitaziorako espedientea irekitzea eta eskabideak aurkezteko deialdia egitea erabaki zuen.

Deialdiaren iragarkia 2017ko apirilaren 24eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2017ko apirilaren 30eko Euskal prentsan argitaratu zen hogeita hamar eguneko epea eman zelarik eskabideak aurkezteko.

Deialdi-epean, honako eskabideak aurkeztu ziren:

Erreg.	Data	Izen abizenak	Hilobi kopurua
1593	2017-04-27	JOSE MARIA GUIASOLA USANDIZAGA	3
1598	2017-04-28	FRANCISCO JAVIER PUERTAS GONZALEZ	2
1625	2017/05/03	BEATRIZ GORRITI ZULOAGA	1
1830	2017/05/22	ANTONIA ALTUNA EZCURDIA	1
2010	2017/06/06	KARMELE URDANPILLETA URDANPILLETA	1

Eskatzaile denak lizitazioan parte hartzeko beharrezkoa den dokumentazio guztia aurkeztu dute, beraz, ez da inor baztertu.



Usurbilgo Udala

Bestetik, 9. Lote honetan hauek dira emakidan eskaintzen diren hilobiak:

- Altzifrea kalea, 5 eskuina (hilobi 1)
- Altzifrea kalea, 5 ezkerria (2 hilobi)
- Altzifrea kalea, 13 ezkerria (3 hilobi edo panteoi erdia)
- Sahatsa kalea, 5 ezkerria (hilobi 1)
- Sahatsa kalea, 8 eskuina (3 hilobi edo panteoi erdia)
- Makala kalea, 2 (6 hilobiko panteoi osoa)
- Makala kalea, 4 (6 hilobiko panteoi osoa)
- Makala kalea, 6 (6 hilobiko panteoi osoa)
- Makala kalea, 8 (6 hilobiko panteoi osoa)


Esleipenak, panteoien kokapen ordena eta sarrera ordena jarraituz egingo dira.

Araudi aplikagarria

- Hilerrri Berriaren Erregimen eta Funtzionamendua arautzen duen Arautegi Nagusia.
- Hilerrri berriko hilobien gaineko eskubideak esleitzeko bete beharreko Baldintza Juridiko Ekonomiko eta Administratibo Bereziak. Jardunbide hau arautuko dutenak.
- Azaroaren 3ko 33/2003 Patrimonioaren Legea (93. artikulua eta jarraipenekoak).
- Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretua.
- Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Erregimen Lokalari dagokionez, indarreko ebazpenen Testu Bateratua onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaren aurka ez doan heinean.
- 1.955eko ekainaren 17ko Toki Korporazioetako Zerbitzuen Erregelamenduaren 114tik 137rainoko atalak, Sektore Publikoko Kontratu Legearen Testu Bateginaren aurka ez doan heinean.
- Izaera osagarritz, Zuzenbide Administratiboko gainontzeko arauak eta, hauek ezean, *Zuzenbide Pribatukoak izango dira indarrekoak.*
- Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Araudia.

Jone Urdanpilleta Batzordeburuak ez du bozketan parte hartu eskatzaile batekiko ahaidetasun kausagatik.

Beraz, guzti hori ikusirik, Zerbitzuak eta Obrak Batzordeak, 2017ko irailaren 14ean egindako bileran, aho batez, Joxe Mari Arregi, Mirari Azurmendi eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak



Usurbilgo Udala

honako erabakia hartu du aho batez (Jone Urdanpilleta Batzordeburuak ez du bozketan parte hartu eskatzaile batekiko ahaidetasun kausagatik):

ERABAKIA

LEHENENGO: Udalak hilerri berrian eskainitako hilobien gaineko eskubideak azalean jasotako eran esleitzea, hau da:

- Altzifrea kalea, 13 ezkerrean hiru hilobi (1, 2 eta 3) JOSE MARIA GUIASOLA USANDIZAGARI.
- Altzifrea kalea, 5 ezkerrean bi hilobi (2 eta 3) FRANCISCO JAVIER PUERTAS GONZALEZI.
- Altzifrea kalea, 5 eskuinean hilobi bat (3) BEATRIZ GORRITI ZULOAGARI.
- Sahatsa kalea, 8 eskuinean hilobi bat (2) ANTONIA ALTUNA EZCURDIARI.
- Sahatsa kalea, 8 eskuinean hilobi bat (3) KARMELE URDANPILLETARI.

BIGARREN: Esleipena gauzatzeko, jarraian idatzitako Hitzarmen Administrazioaren eredua onartzea eta esleipendunarekin sinatu beharreko Hitzarmena prestatzeko agintzea.

HIRUGARREN: Alkateari, Udalaren izenean Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

LAUGARREN: Hitzarmena sinatu hala, esleipendunak ezarritako behin behineko fidantza bueltatzea.

BOSTGARREN: Erabaki honen berri esleipendunari, udal lantaldeko arduradunari, lurperatzaileari eta kontu-hartzaitzari ematea.

SEIGARREN: Esleipendunari, eguna eta ordua jartzea Hitzarmena sinatzera etor dadin.”


Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO SGERC-2 (REZUSTAENEA) SISTEMA OROKORRAREN ANTOLAMENDU XEHATUAREN ALDAKETA HASIERAZ ONARTZEA.

Alkateak puntu honi buruzko azalpenak eman ditu.



Usurbilgo Udala

Rezustaenea esaten denean, Zumarte Musika Eskola dagoen partzelari dagokiola argitu du.

Aurrez hartutako erabaki baten antzekoa dela esan du, uztailaren 26ko plenoan hartutakoa, hain zuzen ere. Bertan, Antolamendu Xehatuaren aldaketa hasieraz onartu zela esan du, baina geroztik proiektuaren xehetasunetan aurrera egin den neurrian arkitekto taldeak adierazi omen du baldintza batzuk bete ahal izateko komenigarria dela hasierako oinarritzko proiektuan zegoen altuera handitzea. Hori dela eta, proposatzen dena da gaurko irizpen honetan, batetik, uztailaren 26ko erabakia bertan behera uztea eta, bestetik, aipatutako aldaketa jasoz proposamena onartzea.

Batzarkideek, Hirigintza batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2015-0065

AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartu zuen. Testu Bategina 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 182. zenbakian.

Orain berriz, SGERC-2 (Rezustaenea) sistema orokorreko hirigintza eremuan kokatzen den Zumarte Musika Eskola eraikinaren eraikigarritasun fisikoa handitzea eta lerrokadurak egokitzea egungo erabilerak beharrezkoak dituen baldintzetara egokitzeko, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorraren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETArako beharrezko dokumentua idatzi dute udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak eta udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.LP. Taldeko Nekane Azarola Martinez andereak. Horrekin batera, eremuan bertan dagoen ezkia babesteko beharrezkoak diren neurriak zehazten dira dokumentuan.

ANTOLAMENDU XEHATUAREN ALDAKETA.HASIERAKO ONESPENA ETA JENDAURREAN JARTZEA.

Plenoak, 2017ko uztailaren 26an, udal teknikarien aldeko txostenak kontutan izanik, zera erabaki zuen hitzez hitz:

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorraren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatzen duenaren arabera, espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia



Usurbilgo Udala

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohiko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

Hartutako erabakiaren arabera, espedientea jendaurrean jarri zen hilabetez, ondoko iragarkiak argitaratuz:

- Berria: 2017-08-01
- Gara: 2017-07-29
- El Diario Vasco: 2017-08-02
- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (154. zenbakia): 2017-08-14

Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean, **ez da inolako alegaziorik aurkeztu.**

Geroztik ordea, Udalaren enkarguz Zumarte Musika Eskolaren birgaitze ekologikoa eta handitzeko Oinarrizko eta Exekuzio Proiektuak idazten ari den OS3 Arkitektura Taldeak, Antolamendu Xehatuaren aldaketan beste hainbat zehaztasun jasotzeko proposamena helarazi du.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egituren Azkune andereak, Antolamendu Xehatuaren aldaketarako dokumentuaren idazleetakoa denak, OS3 Arkitektura Taldeak egindako proposamena aztertu ondoren honako txostena eman du:

UA2017_01_04

BULEGO TEKNIKOA

Udal Teknikariak Alkate jaunari

PLANEAMENDUA

USURBILGO HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN TESTU BATEGINAREN ORDENAZIO XEHAKATUAREN ALDAKETA SGERC-2 (REZUSTAENEA)-REN HASERAKO ONESPENA BERTAN BEHERA UTZI ETA ALDAKETEKIN BERRIRO ITZAPIDETZEKO TXOSTENA

KOKAPENA: SGERC 2 REZUSTAENEA, Zumarte Musika Eskola, Usurbil.

ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ.01/2017- 0379

1. AURREKARIA

- 2017ko uztailaren 27an AASSTB-ren ordenazio xehakatuarne aldaketa SGERC2- REZUSTAENEA SISTEMA OROKORRAri dagokiona haserakoz onartu zuen.



Usurbilgo Udala

- 2017ko uztailaren amaieran OS3 taldeak Zumarte Musika Eskola, SGERC-2 REZUSTAENEA sistema orokorrean kokatzen dena, birgaitzeko eta handitzeko Exekuzio Proiektua aurkeztu zuen Udalean.
- 2017ko abuztuaren 14an AASSTB-ren ordenazio xehakatuaren aldaketa SGERC-2 REZUSTAENEA dokumentuaren haserako onspena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 20 lanegunez jendaurrean jarriaz.
- 2017ko abuztuan OS3 arkitektura taldeak dokumentuaren inguruan eskakizuna luzatu dio behean izenpetzen duen teknikariari.

2. TXOSTENA

Aurrekarietan azaldu bezala 2017ko uztailaren 27an Usurbilgo udalak AASSTB-ren ordenazio xehakatuaren aldaketa SGERC-2 REZUSTAENEA SISTEMA OROKORRA-ri dagokiona haseraz onartu zuen.

Geroztik, OS3 arkitektura taldeak Zumarte Musika Eskola-ren birgaitzen eta handitze Exekuzio Proiektua aurkeztu du, SGERC-2 REZUSTAENEA sistema orokorrean kokatzen dena. AASSTB-ren ordenazio xehakatuaren aldaketa SGERC-2 REZUSTAENEA -ri dagokiona ikusirik, arkitekto taldeak komenigarria ikusi du honakoak jasotzea:

- bertan aipatzen den 1.5 m-ko hegalak egiteko aukera 2m-ra handitzea
- egungo eraikinaren altuera handitzeko aukera ematea, erabilera eta egituraren birgaitzeak hala eskatuta, Kale Nagusirako altxaeran gehieneko 12. m-ko altuera finkatuz.
- egungo eraikinaren estalkia bi isurikoa egiteko aukera emanaz, estalkiaren gailurra Kale Nagusiari paralelo.

Eskaera eta Proiektu teknikoak aztertuta behean izenpetzen duen teknikariak egokia ikusi du OS3 taldeak egindako proposamena dokumentuan jasotzea. Baina, honakoak ikusi dira:

1. 2/2006 Legearen 56. artikuluan finkatzen da Hirigintzaren antolamendu xehatua. Bertan, honakoa jasotzen da:

“56. artikulua.- Hirigintzaren antolamendu xehatua.

1. - Hirigintzaren antolamendu xehatuak zehaztaper hauek ezarri behar ditu:

(...)

g) Eraikuntzaren osagai guztiak zehaztu; eta, bereziki, etxeak eta eraikinak definitzeko oinarrizko elementuak:



Usurbilgo Udala

altuerak, solairu-kopurua, hegalkinak, ibilgailuentzako aparkalekuak, eta antzeko beste batzuk.

(...)"

Beraz, esan liteke, orain gehitu nahi diren baldintza horiek antolamendu xehatuari eragiten diotela.

2. Izapidetzen ari den dokumentua, indarrean diren AASSTB-en ordenzio xehakatuaren aldaketa izanik eta baldintza berri hauek ordenazio xehakatuaren aldaketa suposatzen duten heinean, ezinbestean aldaketa esanguratsutzat hartu behar dira eta ondorioz, beharrezkoa litzateke baldintza horiek ere jasotzen dituen dokumentu bateginari haserako onespena eman eta berau jendaurrean jartzea.

3. ONDORIOAK

Gauzak horrela, aipatu bi alderdi horiek dokumentuan sartzeko proposamena ONTZAT hartzen da beti ere, dokumentua osatuari haserako onspena eman eta jendaurrean jartzen bada. Horretarako aurrez emandako haserako onspena bertan behera utzi beharko da.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe. Udalari jakinarazten zaiona dagokion erabakia har dezan.

Usurbilen, 2017eko irailaren 7an.

UDAL ARKITEKTOA

HIRIGINTZA, OBRAK ETA INGURUMENA SAILEKO BURUA

Izta.: Ekhiñe Eiguren Azkune

Hau kontutan izanik, udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak eta udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.L.P. Taldeko Nekane Azarola Martinez andereak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorraren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETArako dokumentu berria osatu dute.

ANTOLAMENDU XEHATUAREN ALDAKETAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA

Aurkeztutako dokumentuaren memoriak honela zehazten du Aldaketaren edukia eta helburua:



Usurbilgo Udala

EZAUGARRIEN FITXA-ren edukia SGERC 2 REZUSTAENEA sistema orokorraren eremua egungo erabilera etorkizuneko beharretara egokitzeko ezinbestekoak dituen handitze eta birgaitze baldintzetara egokitzea da helburua. Horretarako, beharrezkoa irizten da 2. AZALERAK eta 6. ANTOLAMENDUA atalei dagokien zuzenketak egitea.

Aldaketaren komenitasun eta egokieraren eta justifikazioari dagokionez berriz, honela zehazten da:

Aurreko ataletan justifikatu den moduan, aldaketa puntualaren espediente honek helburutzat dauka hirigintza-estaldura ematea Arau Subsidiarioak aisialdi- eta kultura-ekipamenduko sistema orokor bati - SGERC 2 REZUSTAENEA – onartzen dien eraikigarritasun fisikoa handitzeko. Era berean, planteatzen den handipenari hainbat hirigintza-zehapen egokitzea proposatzen da.

LEGE TXOSTENA

Udal idazkariak, Antolamendu Xehakatuaren aldaketarako dokumentua aztertu ondoren, ondoko txostena eman zuen:

LEGE-TXOSTENA

GAIA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorraren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA hasieraz onartzea

Esp. Zenbakia: HZ.01/2017-0379

AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an egindako bilkuran, Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartu zuen. Testu Bategina 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 182. zenbakian.

Orain berriz, SGERC-2 (Rezustaenea) sistema orokorreko hirigintza eremuan kokatzen den Zumarte Musika Eskola eraikinaren eraikigarritasun fisikoa handitzea eta lerrokadurak egokitzea egungo erabilerak beharrezkoak dituen baldintzetara egokitzeko, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorraren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETArako beharrezko dokumentua idatzi du udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak eta udal aholkulari juridikoak, ARAUDI S.LP. Taldeko Nekane Azarola Martinez andereak. Horrekin batera, eremuan bertan dagoen ezkia babesteko beharrezkoak diren neurriak zehazten dira dokumentuan.

ALDAKETAREN XEDEA ETA JUSTIFIKAZIOA



Usurbilgo Udala

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak prestatutako dokumentuan biltzen da Aldaketaren xedea eta justifikazioa.

IZAPIDETZA

Ekainaren 30eko 2/2006 Hirigintza eta Lurzoruaren Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuko 30. artikulua zera dio Antolamendu xehatuaren aldaketari buruz:

“Plangintza orokorrean txertatutako antolamendu xehatua Plan Nagusiaren aldaketaren irudia, edota Plan Bereziaren edo Plan Partzialaren irudia (dagokionaren arabera) erabilia aldatu ahal izango da. Irizpideak egiteko prozedura 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututakoa izango da.”

2/2006 Legearen **95.** artikulua arabera, Antolamendu xehatuaren aldaketak honako izapidetzea du:

95.2. art. *“Udalak hasierako onespena (...) emango dio plan partzialari. (...) Jendaurrean jarriko du, udalerriri dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurralde horretan tirada gehien duen egunkarian/etan hasierako onspena emateko erabakia argitaratuz. Plana 20 egunez egongo da, gutxienez, jendaurrean, azken argitalpenaren egunetik aurrera”.*

95.3. art. *“Jendaurrean egondako epean aurkeztutako alegazioak ikusita, udalak behin-behingo edo behin betiko onartuko du plana, bidezko diren aldaketak egin ondoren. Aldaketak funtsezkoak badira, plan partzialaren testu batekin berri bat egingo da. Testu horri hasierako onspena emango zaio eta berriz ere jendaurrean jarriko da”.*

95.4. art. *“Udalak plana behin-behingo edo behin betiko –dagokionez- onartzeko, sei hilabete izango ditu gehienez ere, hasierako onspena eman zaionetik kontatuta (...)”.*

95.5. art. *“(...) 3.000 biztanletik gorako udalerrietan, udalaren bigarren onspena behin betiko onspena izango da”.*

2/2006 Legearen **89. art.k** argitalpena eta indarraldia xedatzen ditu:

89.1. art. *“Hirigintzako planen onarpenari dagokionez, plangintza onartu duen herri-administrazioak jendaurrean jarriko du haren eduki osoa (...)”*

89.3. art. *“Artikulu honetako 5. zenbakian aipatzen den argitalpena egin aurretik, hirigintzako planak eta haien aldaketak eta berriskuspenak igorriko dituzte udalek, dagokion foru-aldundko erregistroan sartzeko (...)”.*

89.5. art. *“Lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko dira, eman dituen organoaren xedapen baten bitartez, behin betiko onspena emateko erabakiak*



Usurbilgo Udala

[...]. Behin betiko onespina emateko erabakiak, gainera, dagokion lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian/etan ere argitaratuko dira. Bi kasuetan, oso-osorik argitaratuko dira, bai eta dagokion hirigintza-plana aipatutako erregistroan jaso dela adierazi ere”.

Bestade, adierazi behar da, apirilaren 2ko 7/1985 legeak 22.2.c)art.ak xedatutakoaren arabera, **udalbatza plenoari dagokio** plangintza orokorrari buruzko akordioak *hartzea “La aprobación inicial del planeamiento general y la aprobación que ponga fin a la tramitación municipal de los planes y demás instrumentos de ordenación previstos en la legislación urbanística”.*

Beraz, hasierako onespina eta behin betikoa udalari dagokio. Bi kasuetan, **gehiengo absolutuz onartu beharko da aldaketa**, honela baitio apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.art.ak: “ *Se requiere el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de las corporaciones para la adopción de acuerdos en las siguientes materias: II) Los acuerdos que corresponda adoptar a la corporación en la tramitación de los instrumentos de planeamiento general previstos en la legislación urbanística.* “

Laburbilduz, **izapidetzeari dagokionez**, honako hauek dira **eman beharreko pausu nagusiak**:

- Hasierako onespina udalbatza plenoari dagokio, gehiengo absolutuz
- Aldaketa 20 egunez jarriko da jendurrean, GAOean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.


Aldaketak funtsezkoak balira, berriro ere hasierako onespina emango litzaioke testuari eta jendurrean jarriko litzateke.

- **Plenoak**, alegazioak ikusita, behin betiko onartuko du dokumentua. Sei hilabeteko epea ezartzen da horretarako, behin hasierako onespina eman ondoren.
- Antolamendu Xehatuaren aldaketa Foru Aldundira igorriko da, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin. Behin betiko onespina GAOean eta ohizko egunkarietan argitaratuko da eta bertan adieraziko da hirigintza-plana aipatutako erregistroan jaso dela. Antolamendu Xehatuaren aldaketa GAOean argitaratu eta handik 15 lanegunetara sartuko da indarrean.

Hauxe da sinatzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritziren kalterik gabe.

Usurbilen, 2017ko uztailak 14
Udal idazkariak
Garazi Etxeberria San Miguel

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2017ko irailaren 14an egindako bilkuran, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta, Mirari Azurmendi eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Plenoak, 2017ko uztailaren 26an, hasieraz onartu eta jendaurrean jartzea erabaki zuen Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorraren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA (2017ko uztaila) bertan behera uztea.

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako SGERC-2 (Rezustaenea) Sistema Orokorraren Antolamendu Xehatuaren ALDAKETA (2017ko iraila) hasieraz onartzea.

HIRUGARRENA: Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak xedatzen duenaren arabera, espedientearen jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohiko egunkarietan argitaratuz, interesatuek proiektua aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.


Beraz, erabakia aho batez hartu da.

8.- HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO BERRIKUSPENAREN TESTU BATEGINAREN 02 ALDAKETA PUNTUALAREN DOKUMENTU OSATUA ONARTZEA.

Alkateak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu eta bertan dokumentu osatua onartzea proposatzen dela adierazi du.

Gai hau aspalditik datorrela adierazi du eta zehaztu du bere garaian arauetan hiru aldaketa egitea onartu zutela, hain zuzen ere, batetik, Aginagako erriberan Eizazpi eta Oriagain arteko bidea sistema orokor izendatzea, bestetik, Zubietako uren ponpalekua sistema orokorra izendatzea eta, azkenik, hirigintza arauen 53. eta 54. artikuluen egokitzapena.

Izapidetza horrek bere bidea egin duela esan du eta 2017ko urtarrilaren 31n hartutako behin betiko erabakia Erkidegoko Lurraldearen Antolamenduko Batzordera helarazi ondoren, bertatik nahiz eta aldaketekin desadostasunik ez adierazi, Uraren Euskal Agentziak egindako txostenean nolabaiteko ñabardurak egiten dira. Eskatzen dutena da urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuak onartutako Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan ezarritako xedapenak hobeto jasotzea planoetan.



Usurbilgo Udala

Udaleko hirigintza departamenduan kontsideratu da egokitzapen horiek ez direla inondik ere esanguratsuak baina komeni dela aldaketa horiek egitea.

Orain Foru Aldundira eraman behar denez, aurretik aldaketa horiek plenotik pasatzea erabaki dela zehaztu du.

Batzarkideek, Hirigintza batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio:

“Espediente zenbakia: HZ.01/2016-0538

AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Diputatuen Kontseiluak, 2011ko irailaren 6an Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina onartzea erabaki zuen. Hauen testua 2013ko irailaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 172. zkiko. Aldizkarian.

Orain Usurbilgo udaleko gobernu taldeak Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren 2. aldaketa puntuala burutu nahi du. Aldaketa horren helburuak indarrean den araudia honako hiru puntuetan aldatzea/eragitea izanik:

- Aginagako erriberan Eizazpi eta Oriagain tarteko bidea sistema orokor izendatzea.
- SGI-1 ZUBIETAKO HUP sistema orokor berria izendatzea.
- Indarren diren Hirigintza Arauen 53. eta 54. artikuluen egokitzapena.

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, idatzi du arau aldaketa puntualerako dokumentua.

ALDAKETAREN JUSTIFIKAZIOA

Udal arkitektoak, Ekhiñe Egiguren Azkune andereak, idatzitako dokumentuan zehazten dira aldaketaren xedea eta justifikazioa. Hitzez hitz honela dio:

A.4.1. AGINAGAKO ERIBERAN EIZAZPI ETA ORIAGAIN TARTEKO BIDEA SISTEMA OROKOR IZENDATZEA.

Aginagako Erriberan, N-634 errepidearen eta Oria ibaiaren artean bada Txokoalden hasi eta Mapilen amiatzen den eta erriberetako lurretara iristen den bidea, oinezko eta ibilgailuen erabilera ohikoa duena, edozein herritarri irekia. Gaur egun indarrean diren Usurbigo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetan lurzoru hiritarrezinean kokatzen da, bidearen gehiengoa Sistema Orokor bezala sailkatua dagoelarik.



Usurbilgo Udala

Aldiz, bidearen zati bat, Eizazpi eta Oriagain tarteko tramua hain zuzen, ez dago hala izendatuta, bide osoak erabilera publiko bera izan arren.

Hori dela-eta, erriberako bide guztiak izaera bera izan dezan eta baita, haren mantenuari begira, erabilera publikorako baldintza egokiak eman daitezzen, beharrezkoa ikusi da Sistema Orokor bezala bide guztia sailkatuta izatea. Horretarako, izendapen hori ez duen bide zatia, aipatu Eizazpi eta Oriagain tartekoa, Sistema Orokor izaerarekin jasotzea ezinbestekoa izanik.

Beraz, aldaketa puntual honetan, sistema orokorraren izaerarekin jasoko da bideak gaur egun duen ibilbidea eta baita ere, bidearen bi aldeetako 10 metrotako babesguneak. Baina, horrek ez du esan nahi, beharrezkoa denik sistema orokortzat hartutako lursail guztiaren desjabetza.

A.4.2. SGI-1 ZUBIETAKO HONDAKIN UREN PONPALEKUA (HUP) SISTEMA OROKORRA IZENDATZEA.

Zubietako auzoan, Aliriko zubi ondoan, egun indarrean diren Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioen Testu Bateinean lurzoru hiritarrezin bezala sailkatutako lurretan “*Zubietako saneamendua, Lasarte Oriá eta Usurbilgo udalerrietako saneamenduko interzeptore nagusiarekin lotzeko proiektua*” egikaritzuz, Hondakin uren ponpaleku berria eraikitzeke egitasmoa aurkeztu du Usurbilgo Udalean Añarbeko Urak S.A.-k.

Zubieta auzoko saneamendua eta Lasarte-Oriako kolektore nagusiaren arteko konexioa egikaritzeko beharrezkoa da hondakin uren ponpalekua ezartzea egungo azpiegitura sareekin lotura ahalbidetuz. Horrekin batera, kolektore berri bat egitea, gaur egun Ipar Konfederazio Hidrografikoak kudeatzen duen Usurbil-Lasarte Oriako kolektore-interzeptorean dagoen sarearekin lotzeko.

Obra hauek ezinbestean, azpiegitura orokorre dagozkien heinean onura eta interes publikoa dakarte. Ondorioz, Sistema Orokor izendatzen da Hondakin Uren Ponpalekua, gaur egun Zubietan ubidera hondakin uren isuria egiten den lekuaren alboan eta baita, kolektore berriarekin lotura.

SOaren azalera 357,5 m² izango da eta eraikuntzak okupatu dezakeen gehieneko oin-azalera 100 m².

Erabilera azpiegitura publikoena izango da; hondakin uren ponpalekua (HUP) eta interzeptore nagusiarekin lotura. Hala nola, erabilera horretarako beharrezkoak diren instalakuntza erabilera baimentzen da.



Usurbilgo Udala

Hondakin Uren Ponpalekua barneratzeko beharrezkoa den eraikuntza baimentzen da, beti ere ingurunean txertatuz eta erriberako paisaian nahiz ingurugiroan izan lezakeen eragina murriztuz. Instalakuntzaren bideragarritasuna ahalbidetzeko obra zibilak ere baldintza berak bete beharko ditu.

Egikaritze araubidea publikoa da, lankidetzeta-sistema desjabetzarena ezarriz.

A.4.3. INDARREAN DIREN HIRIGINTZA ARAUEN 53. ETA 54. ARTIKULUEN EGOKITZAPENA.

Egun indarrean den Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioean Testu Bategineko Hirigintza Araudiak lurzoru hiritarrezinean hainbat irizpide eta zehaztapen finkatzen ditu.

Besteren hainbat baldintzen artean, alde batetik 53 eta 54 artikuluetan eraikuntza berriek beste eraikinekiko bete beharreko gutxieneko distantziak ezartzen dira (50 m) eta bestetik, 54.5 artikuluan lurzoru ez urbanizagarrian baserriei atxekitako txabola, negutegi eta aterpeek hiri lurzoru hiritar edo urbanizagarritiko izan behar duten bereizketa gutxienekoa (1.000 m).

Aurrekarietan azaldu bezala, 2016ko abuztuaren 23an Usurbilgo Udaleko Ingurumen Teknikariak txostena eman zuen. Bertan esaten zen, alde batetik, 53. Eta 54. Artikuluetan eraikuntza berriek beste eraikinekiko bete beharreko gutxieneko distantzia 50 m-koa izateak *Usurbilgo landa eremuaren sustapenerako interesgarriak izan daitezkeen jardueren garapenerako oztopo* dela, arrazoi zehatzak emanez. Bertan esaten zen, bestetik, 54.5. artikulua ezartzen zuen zenbait eraikinek lurzoru hiritar edo urbanizagarritiko izan beharrezko gutxieneko bereizketa 1.000 m-koa izateak *kaxkotik, Aginagatik edo Zubietatik hurbil dauden hainbat larre eta soroetan gutxieneko azpiegiturak jartzea* oztopatzen duela.

Ondorioz, Ingurumen Teknikariaren txostenean zehazten den moduan, indarrean diren Arau Subsidiarioen Testu Bateginaren Hirigintza Araudiko 53. eta 54. Artikuluen egokitzapena justifikatzen da.

ALDAKETAREN IZAPIDETZA

- 2016ko azaroaren 29an, Plenoak, udal teknikarien aldeko txostenak kontutan izanik, gehiengo osoz, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren 02 Aldaketa Puntuala hasieraz onartzea eta hilabetez jendaurrean jartzea erabaki zuen.



Usurbilgo Udala

- Espedientea jendaurreko epealdian egon zen bitartean, ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.
- 2017ko urtarrilaren 31n, Plenoak, gehiengo osoz, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren 02 Aldaketa Puntuala behin behingoz onartzea eta espedientea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordera igortzea erabaki zuen.
- Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeak, 2017ko apirilaren 6an egindako bilkuran zera erabaki zuen:
 - x lurralde-antolamenduaren arloan Usurbilgo Arau Subsidiarioen Bigarren aldaketaren onartzeari eragozpenik ez jartzea;
 - x uraren arloan, 2017ko apirilaren 3n, URA-Uraren Euskal Agentziak emandako aldeko txostenean ezarritako baldintzak bete beharra ezartzea.

DOKUMENTU TEKNIKOAREN EGOKITZAPENA.

URA-Uraren Euskal Agentziak 2017ko apirilaren 3n emandako aldeko txostenean ondoko baldintzak ezartzen ditu:

1. Urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuak onartutako Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan ezarritako xedapenak kontutan hartu beharko dira.
2. Udal hirigintza-araudian, uholde-arriskugarritasunaren kartografia (1.5 plano) eguneratu, eta III: Eranskina aipatu-tako Plan Hidrologikoko 40 eta 41 artikuluetan ezarritakoagatik ordeztu beharko dira.
3. Hirigintza Arauen 53 eta 54 artikuluen egokitzapenari dagokionez, ez da eragozpenik ezartzen. Edonola ere, eraikuntza berri hauek uholde-arriskuko zaintza-eremuan kokatuz gero, aipatutako Plan Hidrologikoko 40. Artikuluan jasotzen diren erabilera-mugak bete beharko dituzte.
4. Jabari Publiko Hidraulikoan edota bere babes-eremuetan egingo diren obrek Arroko Organismoaren administrazio-baimena lortu beharko dute aurretik. Baimen hori Agentzia honetan izapidetuko da.

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren 02 Aldaketa Puntualaren behin betiko onespenerako dokumentua udal arkitektoak, Ekhiñe Eiguren Azkune andereak, eta udal aholkulari juridikoak, Nekane Azarola Martínez andereak, egokitu dute.



Usurbilgo Udala

Egokitzapenak ez dira sustantzialak edo esanguratsuak, izan ere dagoeneko indarrean dagoen araudiaren arabera osatu baita aldaketa.

Hala ere, egokia ikusi da dokumentu osatua Diputaziora igorri aurretik, Plenoan onartzea.

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2017ko irailaren 14an egindako bilkuran, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENENGO: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuspenaren Testu Bateginaren 02 Aldaketa Puntualaren dokumentu osatua onartzea.

BIGARRENA: Behar bezala diligentziazatutako dokumentu osatuaren (2017ko abuztua) lau kopia, erabaki honekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea behin betikoz onar dezan.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

9.- EGUNEKO ARRETA ZERBITZUAREN ARAUTEGIA BEHIN BEHINEKO IZAERAZ ONARTZEA.

Jone Urdanpilletak irizpenari buruzko azalpenak eman ditu. Behin eta berriz komentatu izan duten bezala, aipatu du Gizarte Zerbitzuen Legeak eskumenen banaketa egiten duela eta eguneko arreta zerbitzua lehen mailako arreta zerbitzu gisa ulertzen duela. Halaber, udaletako gizarte zerbitzuei dagokiela zerbitzu hau eskaintzea eta betetzea. Hori horrela, orain dakartena zerbitzu hori gestionatzeko arautegia dela gaineratu du.

Jarraian, irizpenean jasotzen den moduan prozeduraren berri eman du.

Bihar bertan, zerbitzuari buruzko bilera ireki bat izango dela Artzabalen aipatu du.



Usurbilgo Udala

Batzarkideek, Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatzailearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zkia.: GZ.30/2017-0350

1.- AURREKARIAK

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak bermatzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren prestazioak eta zerbitzuak lortzea eskubide unibertsala eta subjektiboa dela, eta eskubide hori betetzea erreklamatu ahal izango dute, administrazio-bidean eta jurisdikzio-bidean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsalizatzeko Lege horrek ezartzen duen epea amaitzen denean (2016-12-25), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoaren zerbitzu edo prestazio ekonomiko bakoitza lortzeko baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzen dituzten pertsona guztiek.

12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, Eguneko Arretako Zerbitzua sartzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan, lehen mailako arretako zerbitzu gisa (22.1.7 artikulua), eta ezartzen du udalen gizarte zerbitzuei dagokiela zerbitzu horiek eskaintzea eta betetzea.

Era berean, 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, horrela dio:

- 5. artikuluan: Udalek eskumena izango dute Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 22. artikuluan zehaztutako lehen mailako arreta-zerbitzu guztiak emateko, telelaguntza zerbitzua izan ezik.
- 32. artikuluan laguntzen definizioa dator: pertsonen eskura jartzen diren baliabide formalak (zerbitzuak eta prestazioak) eta informalak (sare soziofamiliarrekoak) haien funtzionamendu indibiduala, garapena eta bizikalitatea hobetzeko, baita haien komunitate barruan partaidetza aktiboa, bizimodu independentea eta autonomia izan dezaten sustatzeko ere.
- I. eranskinean, 1.7 fitxan, eguneko arretako zerbitzuak buruzkoan, zerbitzu motak definitzean, horrela agertzen da: zerbitzu hau aldi batean edo modu iraunkorrean erabiltzeko da eta mendetasun-arriskuan edo mendetasun-egoeran dauden adinekoei (I. gradua, Mendekotasunaren Balorazio Baremoan 25etik 39ra bitarteko puntuazioa izanik) arreta ematen die.

Usurbilgo Udalak adinekoen eguneko arreta zerbitzua martxan jartzeko beharrezkoa du zerbitzu horrek izango duen gestio eredia eta funtzionatzeko modua martxan jarri aurretik onartzea. Udal eskumenerako gizarte-zerbitzuen antolakuntzarako eskubide hori 12/2008ko 42.1 artikulua eta 185/2015eko dekretuko 14. artikulua ematen dio.

Guzti hau kontutan izanik, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 2017ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Jone Urdanpilleta, Josune Estella, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko bozkekin, aho batez, luzatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



Usurbilgo Udala

ERABAKIA

LEHENA: Eguneko Arreta zerbitzuaren arautegiari haserako onespena ematea, ebazpen proposamen honi eranstean zaiolarik.

BIGARRENA: Espedientea erakusketa publikoan jartzea 30 eguneko epean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN dagokion iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, interesdunek bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ditzaten.

HIRUGARRENA: Aipatutako epean erreklamazio edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, behin betiko onartuzat joko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 49. artikulua xedatutakoarekin bat.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

10.- MOZIOA: USURBILGO UDALA KATALUNIAREKIN BAT, DEMOKRAZIAREKIN BAT. INDEPENDENTZIA.

Alkateak esan du EH Bildu udal taldeak “Usurbilgo Udala Kataluniarekin bat, demokraziarekin bat. Independentzia” mozioa aurkeztu zuela eta proposamen hori Antolakuntza Batzordean diktaminatu zela. Aurreko asteko asteleheneko Antolakuntza Batzordea izan geroztik egunetik egunera sekulako astindu soziala eta politikoa egon da, eta horrek ekarri duela dio EH Bildu udal taldeak berak hasierako mozio horri gehikuntza batzuk egin nahi izatea. Proposatzen dituzten aldaketak emendakin moduan tratatzea nahiko luketela adierazi du.

Jarraian, proposatzen duten testu berria banatu da batzarkideen artean. Bertan, jatorrizko testuaren gainean horiz markatuta agertzen dira txertatzea proposatzen diren aldaketak.

Alkateak proposatu du testu berri hau bere osotasunean irakurtzea eta, ondoren, lehenengo aldaketei buruz bozkatzea eta, bigarren, aldaketak onartuko balira testua bere osotasunean onartzea.

Idazkariak argitu du aldaketak emendakin moduan planteatzen direnez, lehenengo emendakinak bozkatuko direla, hauek onartzen badira testura inkorporatuko direla eta



Usurbilgo Udala

testu berri hau ez balitz onartuko hasierako testua bozkatuko litzatekeela. Aurreko Antolakuntza Batzorde batean holakoetan horrela egitea erabaki zela esan du.

Jarraian, alkateak emendakinak txertatuta dituen testua irakurri du.

Alkateak adierazi du testuan esaten denaz gain ez duela ezer gehiago esateko, soilik erabateko babesa eta konpromisoa adierazi nahi diela Kataluniako herriari, bere ordezkari politiko eta instituzionalei, iruditzen zaielako munduko edozein herrik duela eskubidea bere geroaz libreki erabakitzeko eta ez dela zilegi inongo Estatuk inposatzea, kasu honetan indarraren legea herritarren borondatearen aurka.

Hitza eman die gainerako batzarkideei.

Josune Urkolak adierazi du mozioarekin ados daudela.

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du bera ez dagoela ados mozioarekin eta bere ideiak biltzen dituen testu bat irakurri du: "Kataluniaren eta gainontzeko espainiarren harremanak 2010. urtetik irtenbide gabeko arazoa da. Auzitegi Konstituzionalak partzialki aldatu egin zuen 2006an bozkatu zuten Estatutua.

Kataluniako eta Espainiako gobernuek ez dute aurkitu elkarrizketaren formula bat egoera honi aurre egiteko. Kataluniako Gobernuak eta laguntza ematen dioten independentistak aukeratu dute bide bateratua eta legearen kontrakoa.


Beharrezkoa da gogoratzea hautsi direla Parlamentuaren arauak, Kataluniako Estatutua eta Konstituzioa. Bide bateratu honek huts egingo du, legearen kontrakoa delako eta horrela esan dute Kataluniako Parlamentuko abokatuak, Auzitegi Konstituzionalak eta Kataluniako baliokideak (Consell de Garanties Estatutàries de Catalunya) eta baita Europako Kontseiluko Veneziako batzordeak ere.

Sozialistok esan dugu bi trenen artean istripu bat gertatu daitekeela eta beti defendatu dugu beste bide bat, elkarrizketa, negoziazioa eta akordioa. Zoritzarrez gure planteamendua ez dute hartu eta trenen arteko istripua gertatu da.

Proposatzen dugun akordioa konstituzio federaleko erreforma batean bukatuko litzakete eta herritarrek bozkatuko lukete. Sozialisten kongresuan proposatu dugu batzorde bat gai hauek tratatzeko.

Hori denagatik, Kataluniako Gobernuak uko egin behar luke, legearen kontrako erreferenduma delako eta berehala ireki elkarrizketa eta negoziazioaren prozesua Kataluniako eta Espainiako alderdi politikoen artean.

Espainiako Gobernuari esan, arazo politiko bati erantzun politikoa eman behar zaiola eta Estatuaren erantzuna arazo politiko honi ezin du izan bakarrik justiziaren ekintza."



Usurbilgo Udala

Alkateak adierazi du ona dela gai honi buruz hitz egitea, premia badaukagula dio, ez bakarrik Katalunian baita Euskal Herrian ere.

Ferminek esan duen gauza batekin modu positiboan bere adostasuna azalduz hasiko dela adierazi du, hau da, arazo politikoek irtenbide politikoak behar dituztela. Hori aurrera pauso handia dela iruditzen zaiola dio, zeren egunerokoak erakusten digula dio arazo politikoei askotan indarraren arrazoiarekin erantzuten zaiela eta indarraren arrazoia ez da arrazoi politikoa.

Arazo politikoei benetan irtenbide politikoa eman nahi bazaie, politikaren esparrura jaitsi behar dugula uste du eta horrek behartzen dituztela berdinean elkarrizketa bideak irekitzea. Berdinean dionean esan nahi duela dio aukera guztiak zilegi eta defendagarriak direla kontsideratuz.

Hemen gertatzen dela dio, Ferminek erreferendum ilegala dela esan duela, baina alkateak dio erreferenduma ilegala izango dela Espainiako marko legalaren arabera, baldin eta ez bazaio onartzen Kataluniarri subjektu politiko gisa bere legalitatea garatzeko eskubidea. Zeren onartzen bada Kataluniak badaula eskubide hori, aurkitzen gara legalitate horrek legalitatea ematen diola oraingo prozesu honi.

Halaber, kasu honetan paradoxa handi bat gertatzen dela dio. Madrildik askotan entzuten ari direla dio ezin dutela erreferendum ilegal batean oinarritutako ezer onetsi, baina Kataluniatik esaten zaienean hitz egin dezatela ikusteko nola egin dezaketen modua erreferendum legal bat egiteko, orduan honen aurrean ezetz diote, ez daudela prest Kataluniarekin hitz egiteko, erreferendum ilegal bat egin nahi dutela esanez. Honen aurrean alkateak salatu du blokeo edo beto faktiko bat egiten dela Madrildik eta Kataluniarri ez zaiola inongo aukerarik eman prozesu hau beste modu batetara eramateko.

Jarraitu du esanez Kataluniarri egin zaiona dela Kataluniako ordezkariak hartutako erabakiak Madrilen sistematikoki zakarrontzira botatzea. Madrildik esaten zaiena da “egizue gauza bat legala, gure legalitatearen arabera, ze gu arduratuko gara zuek egiten duzuen hankaz gora jartzeko”, hori ez dela modua dio arazo politiko bati konponbidea emateko. Beste modu batetara jokatzeko eskatzen duela dio eta gustatuko litzaiekeela dio Katalunian ere Eskozian edo Quebec-en egin diren bezalako prozesuak egin ahal izatea, non estatuaren onarpena jasotzen den holako autodeterminazio prozesuak aurrera eramateko. Bide batez, Euskal Herrian ere aukera hori izatea gustatuko litzaiekeela adierazi du. Beraz, arazo politikoari irtenbide politikoa aurkitu behar zaiola bai, baina inolaz ere ez indarraren poderioz eta bai elkarrizketaren eta irekitasunaren bidetik.

Antolakuntza Batzordean Fermin-i esan omen zion “orduan, Fermin, jarri ditzagun aukera guztiak mahai gainean eta hitz egin dezagun lasai eta eman diezaiegun herritarrei aukera guztien artean erabakitzeke, independentzia barne” eta honi Fermin-ek erantzun omen zion “ez, independentzia ez”, eta berak diona da bai, independentzia ere zilegi dela, besteak bezalako aukera dela. Kataluniako herritarrek aukera hori nahi



Usurbilgo Udala

baldin badute, baliatzeko eskubidea dutela uste du. Hor badagoela koska bat uste du Espainiak bere garaian inperio gisa eta gaur egun estatu gisa gainditu ez duena, hau da, aitortzea bere baitan dauden nazioek, hala nahi badute, independenteak izateko eskubidea badutela. Eta hori gainditzen ez duen bitartean, arazo politiko horrek bere horretan iraungo duela uste du.

Fermin Orue-Echevarriak esan du Katalunian denek modu batetara pentsatuko balute bezala hitz egiten duela alkateak eta Madrilen beste modu batetara, eta hori ez dela horrela adierazi du. Lehenengo, Madrileren joan aurretik, zer bozkatu Katalunian barruan bertan lortu beharko luketela akordioa dio, eta hori ez dutela egin esan du. Ez dutela ezer errespetatu eta horrela Madrileren nola joan daitekeen galdetzen du, lehenengo Kataluniako Parlamentuak erabaki bat hartu beharko lukeela dio gero Madrileren joan eta bertan negoziatzeko.

Zalantzak dituela dio erabakiaren alde zeintzuk bozkatu duten, Junts pel Sí eta CUP. Junts pel Sí direla dio lehen Convergencia eta ERC zirenak. Informatu dela dio 2014ean Kataluniako Parlamentuan proposamen edo mozio bat aurkeztu zela hiru herritan autodeterminazioa defendatzeko, Kurdistanen, Palestinan eta Saharan, eta CIUK aurka bozkatu zuela adierazi du, tartean CIUKo parlamentaria zen Carles Puigdemontek. 2014tik hona gertatu dela dio hainbat alderdi desagertu direla, CIU tartean, ustelkeria pilo bat agertu dela, etab. Hau dela dio esaten dena "huida hacia adelante", hau da, nahi dutena dela independentziaren prozesu hau baliatu ustelkeria kasuak tapatzeko eta errepublika berri horretan ustelkeria kasuetan nahastuta dauden jendea "gizon ohore" bezala saltzeko. Convergenciaren benetako intentzioak zeintzuk diren zalantzan jarri ditu eta ez dituela sinesten gaineratu du.

Alaitz Aizpuruak adierazi du Katalunian hartutako erabakiak gehiengoak demokrazian hartutako erabakiak izan direla. Ez du uste justua denik eskatzea aho batez hartzea erabakia edo nola hartu behar duten.

Bestalde, pertsona, politikari edo alderdi batzuk 2014tik gaur arte iritziak aldatzeari buruz, eboluzioak ere existitzen direla dio. Korrupzio kasuak badaudela bai, baina ez dela gaurko gaia dio.

Defendatzen ari dira erabakitzeko eskubidea eta demokrazia praktikan jartzea.

Orain arte, indarra erabiltzen ari dena Madril dela azpimarratu du.

Josune Urkolak aipatu du gatazka hau 2010az geroztik datorrela, baina Madrilek ez duela inolako borondaterik erakutsi, ezta hitz egiteko ere.

Gaineratu du Ferminek ez diola zilegitasunik eman Katalunian onartu zen moduan Madrileren joatea. Baina, aldiz, Gasteizko Legebiltzarrean onartu zela eta Ibarretxe Madrileren joan zela baina ezezkoa jaso zuela adierazi du.



Usurbilgo Udala

Ferminek adierazi du irakurri duela Kataluniako eta Espainiako Gobernuek ez dutela aurkitu elkarrizketaren formula bat egoera honi aurre egiteko.

Alaitzek gaineratu du batek ez badu nahi, zaila izaten dela biek hitz egitea.

Ferminek komentatu du aurreko presidentea izan zen Artur Masek esan zuela erreferenduma ez zela negoziatzen.

Alaitzek gaineratu du Rajoyk berriz esan zuela ezetz, ez zela egingo. Posturak argiak direla esan du.

Ferminek, Parlamentuak lortu zuen erabakia gehiengo hartu zela zalantzan jarri du, izan ere, bozkatu zutenean hiru alderdi ez zeudela dio, eta zeuden hirutik bat abstenitu egin zela. Hartu zen erabakia Kataluniako Estatutuaren aurka zihoala zehaztu du, zeren, Estatutuak akordio hori hartzeko 3/5a eskatzen baitu.

Jose Mari Iribarrek adierazi du Estatutu hori Madrilek inposatutakoa dela.

Ferminek erantzun dio Katalunian erreferendum bidez bozkatu zutela eta beraiek onartu zutela.

Jone Urdanpilletak aipatu du herritarrek emandako agindu bat betetzen ari dela Parlamentua.

Bestetik, beste eztabaida bat ere badagoela dio, hau da, estatu mailan partidu independentistak onartzen dira baina gero Estatuak ez duela onartzen independentzia bozkatzea. Hori nola konpontzen den galdetu du.

Ferminek dio independentzia bozkatu ahal izateko legeak aldatu egin behar direla eta beraiek aldatzea eskatzen dutela.

Alkateak adierazi du hemen bi eztabaida daudela, batetik, independentzia zilegi bada, independentzia gauzatzeko Estatuaren onarpena behar da, bai ala ez. Honen aurrean, beraiek pentsatzen dute nazio batek, kasu honetan Kataluniak, independentziarako bidea egin nahi badu, zilegitasun osoa duela eta ezin zaiola estatu osotik prozesu hori eragotzi. Horren adibide garbia dela dio Eskoziakoa, erreferenduma egin zenean askok pentsatu zutela dio, nahiz eta ezezkoak irabazi zuen, garaipen politikoa izan zela, izan ere independentziaren alde egon daiteke gehiengo soziala edo aurka, baina zilegitasun



Usurbilgo Udala

osoz inongo arazorik gabe herritarrak bozkatzera joan ziren modu librean eta libreki erabaki zuten. Horrelako zerbait zergatik ez Katalunian eta Euskal Herrian galdetzen du.

Bigarren gaia dela dio erabakitzeko eskubidearen inplementazioaren gaia. Eztabaida honek oinarrizko eskubideen trasfondo bat duela uste du. Erreferendum bat egiteko zer behar den galdetzen du eta baita Parlamentuan gehiengo bat baduzu erreferendum hori egitearen alde, zer dela eta herritarrei ez zaien utzi behar beraien iritzia modu librean adieraztea. Zentzugabekeria handia dela dio.

Bestalde, egun hauetan ikusten ari direla dio nola aspaldiko mamu zahar batzuk esnatzen ari diren eta denoi gogora datozkigula dio bizi izandako egoerak. Joera eta jarrera horiek konpontzen ez diren bitartean Kataluniaren, Galiziaren eta Euskal Herriaren arazo politikoak bizirik iraungo duela dio, eta hori modu demokratikoan gainditzen ez bada, arazo hau iraunarazten ari direla dio. Bere ustez modu egokiena eskubide hori aitortzea da eta, gero, beste modu batera jokatuta agian Katalanek Espainiarekin jarraitzea erabaki dezaketela adierazi du edo agian independente izan nahi dutela, baina behintzat beren bidea egiten utzi behar zaiela uste du.

Fermin Orue-Echevarriak aipatu du Madrilgo Gobernuak erreferenduma egitea nahiko balu ere, ezingo lukeela dio, lehenengo Konstituzioa aldatu behar delako.

Carlos Pérezek adierazi du Rajoyk bakarrik ezetz, PSOEk baita ere. Espainiak arazo larri bat duela dio eta, lehen alkateak aipatu duen bezala, aspaldiko mamuak altzatzen ari direla. PSOERI ez bustitzea leporatzen dio.

Ferminek erantzun dio noski busti nahi dutela, Diputatuen Kongresuan Komisio baten eskaera egin dutela adierazi du. Errepikatu du erreferenduma egin ahal izateko aurretik legea aldatzea beharrezkoa dela.

Legea aldatzeari buruz, Alaitzek esan dio zaila egiten zaiola hori sinestea, hori horrela bada zeren zain dauden galdetu du.

Alkateak adierazi dio Fermi benetako borondatea balego, konponduko litzatekeela dio. PSOEk independentzia babestuko al lukeen galdetu dio.

Ferminek erantzun dio ez dutela independentzia babesten. Halere, ez direla hain arraroak dio eta aurrekoan batzordean esan ziona errepikatu dio, munduan 190 nazio daudela eta bat bakarrik onartzen duela autodeterminazioa esan du, Etiopiak. Gainontzeko 189ak arraroak direla esan du, beren konstituzioan autodeterminazioa onartzen ez dutenak. Alkateak Eskoziari buruz esandakoaz esan dio Britainia Handiak



Usurbilgo Udala

ez dutela Konstituzio bat idatzita, baina bien artean akordio bat lortzen badute, zergatik ez galdetzen du.

Alkateak esan dio, hori horrela, Konstituzioak ezin duela traba bat izan orduan, bi aldeen arteko akordioa lortzen bada.

Ferminek erantzun dio ezetz, han ez daukatela Konstituzioa, baina hemen bai.

Alkateak adierazi du Konstituzioa tresna bat dela, berez ez dela helburu bat, Estatu baten elkarbizitzak etab. arautzeko tresna bat dela, oinarrizko legedi bat dela dio. Ferminek uste badu oinarrizko legedi hori inkorporatu behar dela Nazio Batuen Erakundeak aitortzen duen autodeterminazio eskubide hori, hori onartzeko modua egiten duela dio, aldiz, uste badu hori ez dela onartu behar ez du onartzen. Nazioarteko legedian eskubide hori jasota dagoela esan du, beste kontu bat dela dio estatuek hori inkorporatuta ote duten.

Ferminek erantzun dio Nazioarteko legediak autodeterminaziorako babesa bi kasutan bakarrik jasotzen duela, koloniak izan zirenak eta aurretik estatu izandakoak.

Alkateak adierazi dio lege guztiak interpretagarriak direla eta lege guztiek dutela interpretaziorako tarte bat. Zehaztu du kolonia zer den eta estatua zein izan den hori ez dela batere kontzeptu zehatza. Estatu modernoa nahiko gauza berria izan daitekeela dio. Adibidez, aipatu du esateko Katalanei sekula ez dutela estatu egiturarik eduki edo euskaldunoi esateko ez dugula gure izaera propio bat estatu formatuan.

Espainiako Konstituzioak jasotzen duela dio Espainiako estatuan nazionalitateak daudela, nazioak daudela esatera ez dela ausartzen, eta bien artean ze diferentzia dagoen ba galdetzen du. Nazioek eskubide hori berezkoa dutela dio.

Ferminek dio ez dagoela ados.

EH Bildu udal taldeak, 2017ko irailaren 18ko Antolakuntza Batzordean adostu zen testuari emendakinak aurkeztu dizkio eta batzarkideek aho batez onartu dituzte.

Jarraian, emendakinak testuan txertatu ondoren, batzarkideek, gehiengoz, honako mozioa onartu dute:

“Urte luzeetako prozesu baten testuinguruan eta herritarren gehiengoaren eskariari ateak irekiz, etorkizuna libreki erabakitzeko bitarteko demokratikoz hornitu du Kataluniako herriak bere bidea. Kataluniako instituzio nagusiek herritarren nahiei bide emateko erabaki irmoa hartu dute.



Usurbilgo Udala

Katalunian herritarren borondatearen eskutik eman diren urratsei, indarraren, mespretxuaren eta zaharkitutako legeen ustezko arrazoiarekin erantzun zaie Madrildik.

Bide demokratikoen aurkako eraso larri honen aurrean, Usurbilgo Udalak honako mozio hau eztabaidatu eta onartzen du:

1.- Udal honek babesa, errespetua eta zilegitasun osoa aitortzen dio Kataluniako Parlamentuak burutu nahi duen erreferendumari. Izan ere, libreki adierazitako herritarren borondatea da tresna politikorik eraginkorrena edozein herri edo kolektiboren etorkizuna eraikitzeko.

2.- Udal honek, Kataluniar herriaren eta Parlament-aren erabaki burujabeen aurka Espainiar Estatutik buruturiko eraso salatua eta arbuiatzen ditu, Madrilgo Gobernuak, epaitegiak eta Auzitegi Konstituzionala ezin direlako Kataluniako herritarren gehiengo zabalak adierazitako borondate demokratikoaren gainetik jarri.

3.- Modu demokratikoan aukeratuak izan diren Kataluniako alkateak eta Gobernuak kideak deklaratzera deitzea eta atxilotzea irmoki salatzen dugu. Demokrazia praktikan jartzea ahalbidetu nahi duten herri-ordezkariek inputatzea deitoratzen dugu.

4.- Udal honek, Euskal Herria, Katalunia edo munduko gainerako herrietan, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen dituzten prozesu politikoen alde egiteko konpromisoa hartzen du.

5.- Udal honek urriaren 1eko emaitza errespetatzen du eta Instituzio zein eragileei ere hala egitea eskatzen die. Horretarako erabaki honen berri Kataluniako Parlament-eko lehendakariari, Madrilgo Gobernuak presidenteari eta Auzitegi Konstituzionalako presidenteari ematea erabakitzen du, bai eta gure udalerriko herritarrei ere.

6.- Urriaren 1eko galdeketa bitarte Udaleko balkoian estelada jartzea onartzen du Udalbatzak, Kataluniako instituzio eta herritarrei gure babesa adierazi asmoz.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Aurkako botoa: Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

11.- GALDERA-ESKAERAK.



Usurbilgo Udala

Ez da galdera edo eskaerarik egin.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:55etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.